

IGERIKETA ▶ EZINDUEN ESPAINIAKO TXAPELKETA

Munduko bederatzi errekorrekin itzuli dira igerilari donostiarrak

Konporta, Kemen eta Dordoka taldeak dira Plasenciako Espainiako txapelketan parte hartu dutenak



Richard Oribe Munduko errekorretako bat egin ondoren. KONPORTA



Goian Carlos Molina eta behean Sara Carracelas. KONPORTA

NAROA BALSATEGI

Munduko bederatzi errekor eta hiru koloretako hainbat domina izan dira, ezinduen Espainiako igeriketa txapelketan, donostiarrek izan dituzten lorpenak.

Pozik, oso pozik azaldu dira Plasencian ibili diren hiru taldeetako entrenatzaile eta igerilariak. Izan ere, espero zutena baino txapelketa hobea egin dute hiriko parte hartzaileek. Javier De Aymerich da Konporta taldeko entrenatzailea, eta honen arabera, «kontuan hartuta Richard Oribek Munduko bost errekor egin dituela, Sara Carracelasek beste hiru eta Arkaitz Garciak berriz, bere lehenengoa, ezin dugu zorionsuago egon. Orain jada ez ditugu Espainiako errekorrik kontuan hartzen».

Igeriketa txapelketa hau igerileku motzean egin da eta beraz, Konporta taldeko entrenatzaileak esan duenez, «atletis-

DATUA ▶

27

domina Espainiako txapelketan. 11 urrezkoak izan dira, 9 zilarrezkoak eta 7 brontzezkoak; parte hartu duten donostiar guztiak dominak ekarri dituzte. Honetaz gain, munduko 11 errekor egin dira, horietatik 9 hiriko igerilariak egindakoak dira.

moan ere pista estaliko eta aire libreko txapelketak egiten dira, batean bestean baino marka hobea egin da. Igeriketan gauza bera gertatzen da. Txapelketa hau igerileku motzean egin da eta mugimendu gutxiago dagoenez, mundu mailan aritzen direnek beren markak ondu dituzte».

Ezintasun fisikoak eta garuneko paralisiak dituzten igerilariak parte hartu dute astebu-

ru honetan jokatu den txapelketan.

Oribe, hiru errekor ordu erdian

33 urte ditu antiguatarrak, eta egindako markak, orain arte egindako entrenamenduen emaitza izan direla adierazi du beraren entrenatzaile Javier De Aymerichek. «30 minutuan hiru errekor egin zituen. Lehenengoa 400 metrotakoa egin zuen, ondoren partzialean 200 metrotakoa, eta handik gutxira egin berria zuen marka hobetu egin zuen 200 metrotan».

Orain maiatzaren 5 eta 6an Berlingen izango duten Europako txapelketa prestatzen hasiko dira Richard Oribe, Sara Carracelas eta Arkaitz Garcia. Horren ondoren Oribek eta De Aymerichek Sheffield-en (Ingalaterra) egingo den Nazioarteko irekian parte hartuko dute. «Euskal selekzioaren izenean joan nahi dugu Carracelas eta Garciarekin batera, baina Eusko Jaurlaritzak diru laguntzarik ematen ez badigu, ezin izango dugu euskal selekzio igerilari onenak ezagutzera eman» esan du De Aymerichek.

EMAITZAK ▶

RICHARD ORIBE

50m libre. Munduko errekor berria, 39.42

100m libre. Munduko errekor berria, 1.25.40

200m libre. Munduko errekor berria, 3.08.40 egin zuen lehenengo saiakeran. Bigarrenen 3.02.99, ondu zuen aurreko marka.

400m libre. Munduko errekor berria, 6.21.13

SARA CARRACELAS

50m bizkar-igeriketa. Munduko errekor berria, 1.24.44

100m libre. Munduko errekor berria, 3.08.60

200m libre. Munduko errekor berria, 6.28.58

50m libre. Espainiako txapeldun.

ARKAITZ GARCIA

50m bizkar-igeriketa. Munduko errekorra, 52.43

50m libre. 3. sailkatua.

100m libre. 4. sailkatua.

IÑAKI IRASTORZA

50m libre. Txapeldunorde.

50m tximeleta. Txapeldunorde.

100m libre. Txapeldunorde.

200m estiloak. Txapeldun.

VANESA CARRASCO

50m libre. 3. sailkatua

100m libre. 3. sailkatua

100m bizkar-igeriketa. 4. sailkatua

400m libre. Txapeldun.

ASIER ROMERO

50m libre. Txapeldunorde.

100m libre. Txapeldunorde.

IÑAKI ERAUSKIN

50m libre. 5. sailkatua

100m libre. 3. sailkatua

400m libre. 3. sailkatua

MIKEL HERGEDAS

50m bular-igeriketa. 3. sailkatua

CARLOS MOLINA

50m bizkar-igeriketa. 4. sailkatua

100m libre. 3. sailkatua

200m libre. Txapeldunorde.

DORDOKA TALDEA

4x50m libre. Txapeldunorde.